

# ESTALDURARIK GABE

Osasun-, gizarte- edo  
lege-estaldurarik gabe.  
Etxebizitza duinik gabe.  
Babesik edo sarrerik gabe.

EZ UTZI KANPOAN  
GERA DAITEZEN



Etixerik gabeko pertsonen kanpaina. 2022ko Urriaren 30.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



FINANTZATZAILEA



# Liturgia lagungarriak

Urriak 31a, Domeka

## Sarrerako oharra

Beste urte batez, **Espainiako Caritasek**, beste hainbat erakunderen laguntzarekin batera, **Inor ez bizileku barik** kanpaina aurkeztu gura dogu. Egun guztiz esanguratsua da, gure kanpainak 30 urte betetzen ditu-eta. Hogeta hamar urte gure funtsezko helburua behin eta berrero aldarrikatuz: norbanako eta familia guztiek bizileku iraunkorra eta baketsua izan daiela.

**“ESTALDURA BARIK”** goiburuaren haritik, eskubideez gozatu ezina, eta batez be gizarte babesik eza, salatu gura dogu eta, horrezaz gainera, dei egiten dogu, bakarka zein alkartean gizarte inklusibo izan gaitезan, alkartea sortuz eta inor kanpoan itzi barik.




Azken batean, bistakoa da eragin-trukea eta alkar-eragina. **Inor ez dago estaldura barik**, bakartzen ez bada, bizitzako gertaerei ateak ixten ez badeutsez, baztertzen ez badogu edo adierazpen-askatasuna galarazoten ez badeutsagu.

**Guztion etxean bizi gara**, danona eta danontzat dan etxean, Jainkoak ezinbesteko ondasunak oparitu deuskuz-eta pertsona eta gizateria lez garatu gaitезan.

Anai-arrebok, **amestu daigun guztiontzako bizilekua**, umundu osoko senidetasuna, mundu zuzena non maitasunaren eraginez maitasuna gauzatzeko gaitasuna dauan gizartea hedatu daiten, **danentzako estaldura** ahalbideratuz.

## Damu otoitza

Isilik, geure buruagaz solasean, parkamena eskatuko deutsagu Jainkoari.

-  Kristinauok lurreko ahulenak zaintzeko deia jaso dogu. Egiteko horri muzin egiten deutsagun aldiengaitik. Erruki, Jauna.
-  Ezinbestekoa da arreta jartea, pobretasun barrietatik gertu egoteko. Gizatasuna kentzen daben axolagabekeria guztiengaitik. Kristo, erruki.
-  Batzuetan, behartsuak euren berezko ontasunean, izaeran, kulturean, fedea bizitzeko eran ez baloratzeagaitik. Erruki, Jauna.

## Lehenengo irakurgai

Apalaren otoitzak hodeiak zeharkatzen ditu. Si 35, 12-14. 16-19a

*Emon Goi-goikoari berak emondakoaren arabera, emon eskuzabal zeure baliabideen neurrian, ordainduko deutsu-eta Jaunak, askoz gehiago ordaindu be.*

*Jaunak behartsuen oihuak entzun. Ez erosi nahi izan Jauna zeure opariez, ez ditu-eta onartuko.*

*Ez oinarritu bidegabekeriazko oparietan: epailea da Jauna eta ez dau harengan eraginik inoren izenak; ez dau alderdikieririk egiten behartsuaren aurka eta entzun egiten dau bidegabe erabiliaren eskaria; ez dau umezurtzaren erregua mespretxatzen, ezta kexaka doakon alarguna be. Jaunak gogo onez onartzen dau bera zerbitzatzen dauana, eta honen eskaria zeruraino iristen da. Apalaren otoitzak hodeiak zeharkatzen ditu eta ez da sosegatzen bere helmugara iritsi arte; ez du etsitzen Goi-goikoak esku hartu eta errubakoen alde justizia egin arte. Jauna ez da luzatuko.*

## Salmoa

Sal 33, 2-3. 17-18.1 9 eta 23 (R.: 7ab)

**R.** Atsekabetuak Jaunari dei egin eta honek entzun.

**V.** Bedeinkatuko dot Jauna une oroz,  
etengabe goretsiko ene ezpanez.  
Harro nago Jaunaz;  
entzun beie apalek eta poztu.

**V.** Aurpegi emoten deutse Jaunak gaizkileei,  
lur gainetik ezabatzeko hareen oroitzapena.  
Deiadar egitean, Jaunak entzun egiten dau eta larrialdi guztietatik libratzen.

**V.** Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik  
eta salbatzen ditu etsita dagozanak.  
Jaunak gordetzen dau bere zerbitzarien bizia,  
ez dabe zigorrik harengan babeska dabenek.

## Bigarren irakurgaia

Zain daukat garaipenaren koroa. 2 Tim 4, 6-8.1 6-1

San Paulo apostoluaren bigarren gutuna Timoteori.

*Anai maite hori:*

*Ni neu, neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dot mundu honetatik abiatzeko ordua.*

*Borroka ona egin dot, amaitu dot lasterketa, gorde dot sinismena.*

*Dagoeneko zain daukat garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emongo deustana; eta ez niri bakarrik, baita haren aintzazko etorrera maitasunez itxaro daben guztiei be.*

*Nire auziko lehenengo defentsan ez zan inor atara nire alde; bakarrik itzi ninduen danek; Jainkoak ez deiela kontuan hartu.*

*Baina Jauna neugaz izan neban eta indartu egin ninduan, nire bidez mezua oso-osorik iragarria izan eiten eta jentil guztiek entzun eien; berak atara ninduan lehoiaren ahotik.*

*Jaunak atarako nau gatx guztietatik eta salbamera emongo bere zeruko erreinuan.*

*Berari aintza menderen mendetan! Amen.*

Jaunak esana.

**Aleluia.**

*Aleluia, aleluia, aleluia.*

*Jainkoa Kristorengan egoan mundua beragaz adiskidetzen, eta adiskidetzearen mezua erein dau guregan.*

## Eguneko ebanjelioa

Zergalaria Jainkoagaz bakean itzuli zan etxera, eta fariseua ez. Lk 18, 9-14

Jesukristo gure Jaunaren ebanjelioa Lukasen liburutik.









*Honako parabola hau esan eutsen Jesusek euren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gitxiesten ebezan batzuei: «Gizon bi tenplura igo ziran otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria . Fariseuak, zutik, honan ziharduen otoitzean bere baitan: “Ene Jainkoa, eskerrak zuri besteak bezalakoa ez nazalako: lapur, gaizkile edo adulteriogile; ezta horko zergalari hori bezalakoa be. Astean bi bider egiten dot barau, eta ondasun guztien hamarrenak ordaintzen dodaz”.*

*«Zergalaria, barriz, urrun gelditurik, ez zan begiak lurretik altxatzera be ausartzen, baizik eta bular-joka ari zan esanez: “Ene Jainkoa, erruki zaitez pekatari honetaz”.*

*«Benetan dinotsuet azkeneko hau Jainkoagaz bakean itzuli zala etxera; fariseua, barriz, ez. Zeren eta bere burua goratzen dauana beheratu egingo dau-eta Jainkoak, eta bere burua beheratzen dauana, goratu».*

Jaunak esana.

## Eskariak:

-  Eleizaren eta bateatu guztion alde; geure burua, geure adiskideak eta maite gaituenak maitatzeaz batera, besteengan be pentsatu daigula eta inork maite ez dituanak be maitatu daiguzala.
-  Agintarien alde; euren politiken bidez, bategitea eragin daiela eta behartsuenen alde egin daiela..
-  Gure begirada errukitsua izan daitela eta adore emon deiegula lur jota dagozanei.
-  Gure familien alde; bizikidetza, segurtasuna eta maitasuna nagusitu daitezala.
-  Onartu daigula gure bizitzan Jainkoaren ekintza eta horrek eraginda eskuzabal jokatu daigula behartsuakaz.
-  Eremu politikoan maitasunaren ikuspuntutik jardun daiela, bidegabekeria, langabezia eta etxebizitzaren gehiegizko prezioa dakarren sakoneko arazoetan sakondu daien.
-  Ekonomia gizakiaren eta guztion onaren aldeko izan daiten.
-  Kale gorrian bizi diran 40.000 lagunek bizilekua aurkitu daien eta etorkizunari itxaropenez begiratu deioen. Eskatu deiogun Jaunari.

## Opariak:

**OGIA ETA ARDAOA:** 1 Korintoarrei 11. 26 “Beraz, ogi honetatik jaten eta kopa honetatik edaten dozuen bakotxean, Jaunaren heriotza iragarten dozue, bera etorri arte”. Inori ez daiten jateko eta poztasun barik egon.

**OINETAKOAK:** Jauna, zeuk erakutsi zeunskun lez, gehien sufritzen dagozanen bidelagun izan gaitzala, maitasuna eta errukia zabalduz.

**MAKILA:** Laguntasun izan gaitzala, makilaren antzera sufritzen dagozan anai-arreba guztientzat eta guk geuk fedean aurkitu daigula laguntza.

## Esker ona:

*Eskerrik asko, jasotako ondasun guztiengaitik. Autortu eta gozatu egingo doguz.*

*Eskerrik asko, historian dozun esku-hartzeagaitik; aldatu egiten gaitu eta dagokigun erantzukizuna hartzen lagundu.*

*Zure maitasunaren eraginez, aurrerretxiak eta aurkakotasunak uxatu eta Zuregan uste osoa jarri daigula.*

*Ekonomiak gizakiaren alde egin eta danona dan etxea zaindu daiala, ondasunen banaketa eraginez, inor ez daiten gizaki lez garatzeko ezinbesteko dauana barik geratu.*



**INOR EZ ETXERIK GABE**  
Etixerik gabeko pertsonen  
kanpaina.  
**2022ko urriaren 30.**